

2002-03-21
kioskoa**Agurtzane Ormaetxea**

Ugaritasuna


Egunkariak gai ugarirekin egin zituzten editorialak atzo. Siziliako kostaldean lehorreraturako etorkin kurdien haritik, etorkizun hobe baten bila Europara datozen iheslarien auzia aipatu zuen *El País*-ek, esanez, «ordenu publikoko neurriekin edo oztopo fisiko eta burokratikoekin gelditu ezin den fenomenoaren oso atzetik» daudela Europako agintarien gogoetak. Europari heldu zion, baita ere, *Deia*-k. Hedabide hori kezkatuta azaldu zen «eskuin politikoa lekua hartzen» ari delako, eta «balitekeelako» horrek «ardatz liberala» indartzea. *Deia*-ren arabera, ez da komeni Haiderren, Berlusconiaren edo Aznar beraren gisako «eskuin muturreko pertsonaiek go-regi hegan egitea».

Ekialde Hurbilaz mintzatu ziren *Abc* eta *La Vanguardia*. *Abc*-ren hitzetan, Dick Cheney AEBetako lehendakariordeak «oker egin du Jasser Arafatekin ez bilduta»; horregatik, Ekialde Hurbileko auziarekiko AEBek jarrera aldatu behar dutela ondorioztatu zuen. *La Vanguardia*-ren iritziz, ordea, Cheneyk Palestinako «bolborategia baretu du» hara joatean. «Negozialetan bidez irtenbidea bilatzeko» AEBen esku-hartzea azpimarratu zuen, eta, horri esker, «itxaropen izpi bat badagoela» gehitu.

Monterreyko konferentzia ere hizpide izan zuten hainbat egunkari. «Inozokeria da gobernuai giza izpirituen arabera joka dezatela eskatzea, baina exiji dakiekegu gatazka larriak errotuta dauden pobrezia poltsak desagertzeko lan egiteko», *El Diario Vasco*-k adierazi zuenez. Eta *Gara*-ren esanetan, «egun, garapenera bideratzen den diruarekin gosea desagertzea, pitzatzen ari den presa bateko horman trapa jartzea bezalakoa da».

Egunkaria euskaldunon 3.505. zenbakia**Ohorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Inaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**id** Batzorde Parekidea: 72664 E Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzidorra) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Etorkinen egoera gero eta larriagoa da

Gurera lanera etortzen diren etorkinen egoera gero eta larriagoa da. Nafarroan dugu arazo handiena, han bizi baitira Euskal Herrira etorri diren langile gehienak. Etorkinekin lan egiten duten taldeetako ordezkariak atzo emandako datuen arabera, 5.000-6.000 pertsona inguru bizi dira Nafarroan lan egiteko tramiteak egin gabe. Horrek legez kanpo bizitzera behartzen ditu, kanporaketa arriskuarekin. Egoera hori salatu eta etorkinen eskubideen alde manifestazioa egingo da gaur Iruñeko kaleetan, eta igandean Donostian.



Mamografia bat egiten, Donostiako erietxe onkologikoan.

Emakumeen osasuna jokoan denean, errazegi?

Atzo bi iturritatik emakumeen osasunari buruzko ikerketak plazaratu ziren, biak kritikoak. Batetik, Bartzelonan Europako Bularreko Minbiziaren III. Kongresuan ikeritzaile talde batek bularreko minbiziak jotako emakume askori ez zaiela tratamendu alternatiborik eskaintzen salatu zuten, maiz bularra erazteratzen erraz jotzen dela. Errazegi. Bestetik, Erresuma Batuan egindako ikerketa batean gauza bera esan zuten umetokiko erazketei buruz, maiz beste alternatibarik ez balego bezala jotzen dela ebakuntza horiek egitera. Biak ebakuntza larriak dira. Batek bularrik gabe lagatzen ditu emakumeak, besteak umetokirik gabe. Errazkeriak soberan daude bietan.

%0,7ko laguntzak atzera

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) herrialde azpigaratuei barne produktuen %0,7 emateko finkaturiko konpromisoan estatu gehienek atzera egin dutela eta horietatik laguntza eskasena ematen dutenak Ameriketako Estatu Batuak direla salatuko dute GKE gobernuak kanpoko erakundeek Monterrey 60 gobernu buri eta estatuburu egiten ari diren garapenerako goi bileran. Ehunka manifestarik protesta egin zuten atzo zapatisten alde eta finantza erakundearen kontra. Bestetik, GKEek salatu dute Monterreyn ehundik gora erakunde izan arren, NBEk bilera has-tear zela soilik bederatzi ordezkari izango zituztela jakinarazi ziela.

Globalizazioaren aurkako manifestazioa Monterrey.



Martzelino Soroaren bi obra berreskuratu ditu Goazek

Martzelino Soroaren heriotzaren mendeurrena horretarako aitzakiatzat harturik, Donostiako idazlearen obra bi estreinatuko ditu aurki Goaz antzerki taldeak. Urte asko darama Goazek —1974az geroztik— euskal antzerkigintza errotik —heritik— lantzen, eta Martzelino Soroaren obra zaharren moldaketa berria beste pauso bat izango da bide horretan. Beste batzuetan bezala, argi utzi du Goazek antzerki profesionalak bete ohi ez dituen hutsune askori heltzen diola herri antzerkiak. Dituen muga eta ezintasunei ahal bezala aurre eginez, Hego Euskal Herrian ere herri antzerkiak bizirik jarraitzen duela erakusten ari da, beste behin, Goaz.